

# Hamazazpi

2016ko negua



Ayuntamiento de Zigoitia  
Zigoitiko Udala



**ZIGOITIKO GAZTELEKUA**

**KLIMA ALDAKETA ULERTZEKO 6 GAKOAK**

**NARCISO ALAVA, ONDATEGIKO AGUAZILA**

**GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK**

**2016KO AURREKONTUAK ETA PARTE-HARTZEA**

**XX. MENDEAREN HASIERAKO ZIGOITIKO EUSKARA**

**MARTXOAREN 8KO PROGRAMA, IRADOKIZUN BUZOIA ETA EKONOMIA FEMINISTA**

**JOSEBA ORTIZ DE ARRIZABALETARI, ZENTRO SOZIOKULTURALEKO ATEZAINARI ELKARRIZKETA**

## Hasteko...



### 04 Zigoitiko Gaztelekua. Etorri eta ezagutu!

11-15urte artean badituzu, noski



### 10 ZIGOITIARRAK, Isidro Saenz de Urturiren eskutik ATAL BERRIA!

Narciso Álava, Ondategiko aguzila

## Hemen eta orain



### 06 Gizarte Larrialdietarako Laguntzak

Zer dira? Zertarako balio dute? Nori zuzenduta daude?



### 11 XX. Mendearen hasierako Zigoitiko euskara

Estibaliz Folgoso eta Jaione Guisasolaren ikerketa



### 07 Berdintasuna

Martxoaren 8ko programa, iradokizun buzoia eta Ekonomia feminista



### 12 Klima Aldaketa ulertzeko 6 gakoak

Unai Pascualek, zientifiko, dibulgatzaile eta Zigoitiko bizilagunak, azalduta

## Liburutegitik, maitasunez



### 08 Elkarrizketa

Ioseba Ortiz de Arrizabaleta, Zentro Soziokulturaleko Atezaina



### 14 Javier Arbuluren kolaborazioa

'Peio Murua edo ereiten duenaren eskuak'

## Staff

**HAMAZAZPI.** Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2016ko negua

**Azaleko argazkia:** Peio Murua. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala\_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T\_ 945 46 40 41 · [www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus) · [zigoitia@zigoitia.eus](mailto:zigoitia@zigoitia.eus)

**Koordinazioa eta erredakzioa:** Rosa Ortiz de Mendivil · [romendivil@gmail.com](mailto:romendivil@gmail.com)

**Diseinua eta maketazioa:** Hirudesign Web Estudio S.L · [www.hirudesign.com](http://www.hirudesign.com)

**Imprimaketa:** Gráficas Irudi · [www.graficasirudi.es](http://www.graficasirudi.es) · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopia zezake, editatzaileari baimena eskatu behar da.

**HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:** [www.facebook.com/hamazazpialdizkaria](http://www.facebook.com/hamazazpialdizkaria)



## 2016ko aurrekontuak eta parte-hartzea

Urte batzuetatik hona, aurrekontuak egiterako orduan, parte-hartzea bultzatu du Udalak. Asmoa da zigoitiarrek beren iritzia eman eta ekimenak, lanak edota neurriak proposatu ahal izatea, diru publikoa inbertitzeko interes orokorrak kontuan hartuta.

Hori dela eta, Udalak, iazko azaroaren bukaeran, Kultura Kontseiluko elkarteei galdetu zien ea proposamenik zuten; gauza bera Administrazio Batzarrekin egindako bileretan, eta herritarrek gonbidatu zituen aurrekontuaren zirriborroaren aurkezpenetan parte hartzeko (Apodaka, Etxaguen, Etxabari Ibiña eta Ondategin egin ziren aurkezpenak; urte bakoitzean herri desberdinetan egiten dira).

Batzar horietan, udal-aurrekontua zer den azaldu zen eta ohikoak ez diren gastuen zatia ezagutarazi zen, herriak zertan gastatu proposatzeko. Ideiak eta ikuspuntuak trukatu ondoren, inkesta bat banatu zitzaion bertaratuei. Dokumentuak jasotzen zituen, besteak beste,

Gobernu taldeak egindako 2 proposamen: Bengolarrako igerileku txikiko uraren tenperatura atseginagoa egiteko inbertsioa eta konpostaje-formakuntzako esperientziak martxan jartzea (bai eskolan eta bai udalerrri mailan). Era berean, norbanakoek ekarpenak egiteko aukera eman zen. Galdeketa emaitzen arabera, Gobernu taldeko proposamenek lortu zuten onarpen handiena eta bere aurrekontuen proposamenari gehitu zizkieten. Pasa den urtarrilaren 13an, Informazio batzorde baten barruan, gainontzeko udal taldeei ezagutarazi zizkieten. Handik astebetera, urtarrilaren 22an, berriro ere batzordean, Sarragoa eta EAJ udal taldeek osoko zuzenketa bana aurkeztu zuten. Orditik hona, udal ordezkari guztiak lanean ari dira batzorde desberdinetan, adostasunera heltzeko eta 2016ko aurrekontuak onartu ahal izateko. Informazio gehiago udal webgunean: <http://www.zigoitia.eus/eu/udala/udal-aurrekontua>

## 2016ko Zerga-ordaintzailearen egutegia

#### TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA

##### Borondatezko epea:

2016-03-01 \_ 2016-04-30

Helbideratutako ordainagiriak

kobratzeko data:

Apirilaren hasieran

#### LANDA HIGIEZINEN ZERGA

##### Borondatezko epea:

2016-05-01 \_ 2016-06-30

(lehenengo epea, kuotaren %50)

2016-09-01 \_ 2016-10-31

(bigarren epea, kuotaren % 50)

##### Helbideratutako ordainagiriak

##### kobratzeko data:

Lehenengo epea (kuotaren

%50) ekainaren hasieran

Bigarren epea (kuotaren %50)

urriaren hasieran

#### KALE-ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

##### Borondatezko epea:

2016-05-01 \_ 2016-06-30

(lehenengo epea, kuotaren %50)

2016-09-01 \_ 2016-10-31

(bigarren epea, kuotaren % 50)

##### Helbideratutako ordainagiriak

##### kobratzeko data:

Lehenengo epea (kuotaren

%50) ekainaren hasieran

Bigarren epea (kuotaren %50)

urriaren hasieran

#### ZABOR BILKETAREN TASA

##### Borondatezko epea:

2016-05-01 \_ 2016-06-30

##### Helbideratutako ordainagiriak

##### kobratzeko data:

Ekainaren hasieran

#### ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

#### INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK

Udaletxea. Telefonoa: 945 46 40 41. Asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Faxa: 945 46 40 52, e-mail: [zigoitia@zigoitia.eus](mailto:zigoitia@zigoitia.eus)

#### Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordaintzak

**Ordaintzeko lekuak:** Kutxabank eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan. Internet bidez, web orri honetan: [www.zigoitikoudala.eus](http://www.zigoitikoudala.eus) (Nire ordaintzeta).

#### Finantza-erakundeetan helbideratutako ordaintzak

Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordaintzeta, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

# Zigoitiko Gaztelekua. Etorri eta ezagutu!

(11-15 urte artean badituzu, noski)

Lekuz aldatu da, eraberritu da eta gero eta gazte gehiagok erabiltzen du. Udalerriko Gaztelekuaz ari gara. Hor lan egiten duen monitorearekin, Ander Gomez San Jorgerekin hitz egin dugu. Bere eginkizuna gazteak eroso sentitzean datzala kontatu digu, besteak beste.



## Zer da GZTLK (Gasteleku)?

Gaztelekua, bere izenak dioen bezala, gazteen aisialdirako egokituta dagoen toki bat da. 11 urtetik 15era arteko nerabeei zuzenduta dago. Parte hartzeko, etorri eta listo!

## Programaziorik?

Programazio bat dago kurtso osorako. Denon artean egiten dugu programazioa; koordinatzaileak, begiraleak eta nerabeei parte hartzen dugu. Nik, begirale moduan, nerabeen kezka eta desioak apuntatzen ditut eta gero koordinatzailearekin saiatzen gara bere eskaerak edo iradokizunak betetzen, ahal de heinean, noski.

## Nola funtzionatzen du?

Ostiral eta larunbatetan dago irekita, 18.00etatik 21.30etara. Hilabetean bitan, gutxi gorabehera, tailer edo ekitaldi desberdin bat egon ohi da: sushi, gailera, rap, grafiti tailerra, etab. Urtean zehar bi txango egon ohi dira; momentuz, gabonetan izotz pista joan ginen.



Ander Gomez, Gaztelekuaren monitoria.

## Lekuz aldatu da

Lehen Ondategiko Bengolarra eraikineko pisu batean geunden, gazteentzat egokituta ez zegoen gune batean. Aurten, zorionez, judo egiteko erabiltzen den lekura joan gara eta inbertsio txiki bat eginda, altzairu berriak erosita, grafitiekin apainduta... lekua askoz itxurosoago geratu da. Aldaketarik nabarmenena, nahiz eta nerabe batzuk kexatzen diren, gero eta gazte gehiago etortzen ari direla.

## Nolakoak dira gazteak?

Nire lana gazteak eroso sentitzean datza. Ez da erraza adin diferenteak direlako, kuadrilla heterogeneoak direlako eta pertsonak desberdinak direlako. Batzuk 'umeagoak', beste batzuk lotsa-harrotzeko adinean, lasaiagoak, basatiagoak, inizatiba asko dutenak, eskulanak dituztenak gustuko... Ez da zaila gatazka txikiak agertzea, beraz beti adi nabil gauza horiei garrantzia kentzeko edota konponbideren bat jartzeko. Egund batzuetan ez da bat ere erraza klima aproposa lortzea, baina oro har, gustura daude etortzen jarraitzen dutelako.

## Zer eskatzen dute?

Haiek bere esparru propioa aldarrikatzen dute eta askatasun apur bat nahi dute. Beti ez dute tailerrik egin nahi, askotan bertan egotearekin eta berba egitearekin nahikoa dute; kartetan jolastu, musika entzun, futbolekin partida batzuk... Beraz, askatasuna ematen diet, malgua naiz eta soilik gonbidatzen ditut aukera diferenteak egitera horretarako prest badaude; bestela, ez ditut ezer egitera behartzen.

## Idea berririk?

Gazteek aldarrikatutako WIFLa konpontzea; aurten jarri dute baina arazoak ematen ari da eta gaizki dabil. Gaur egun gazteek mugikorrarekin daukaten lotura oso handia da. Guk, helduok, zerbait pentsatu beharko genuke zentzu horretan gazteak motibatuzko edo kontzientzia hartzeko. Teknologi berrien tailerren bat edo auskalo... Zerbait ikertu beharko genuke. Bestalde, kirola gustuko duten gazteek frontoia izateko parada beharko luketela; egia esan, beti okupatuta dago. Imajinatu 14 urteko 8 nerabe energiak beteta, ostiral arratsaldean, azterketak egin eta gero, lau pareten artean sartuta. Hemen zoro moduan amaitzen dute, 'Pressing catch'era jolasten...



## GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

### Zer dira? Zertarako balio dute? Nori zuzenduta daude?

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak laurogeiko hamarkadaren bukaeran jaio ziren, egoera kritiko eta puntualak sufritzen dituzten pertsonen laguntzeko. Gastu zehatzei erantzuteko dira: hipotekaren kuota, etxebizitzaren alokairua eta mantenu gastuak, gertatu ahal diren matxurak... eta gastu pertsonalak ordaintzeko ere bai: betaurrekoak, audifonoak, dentista... Azken finean, Diru Sarrerak Bermatzeko Sistemak (hau da, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak eta etxebizitzarako prestazio osagarriak) bere gain hartzen ez dituen gastuak.

Udalak kudeatzen eta tramitatzen ditu laguntzak, baina Eusko Jaurlaritzak da finantzatzen dituenak.

Gainera, une honetan berrikuste prozesu baten barruan daude, errealitate sozial berrietara moldatzeko. Esate baterako, kaleratzeak, pobrezia energetikoa, edo egoera ekonomiko txarra sufritzen duten pertsonen kasuak. Kasu horietan guztietan bere balizko higiezinaren ondarea kontuan hartuko da.

Eusko Legebiltzarrean hasi da jada eztabaida, baina oraingoz ezer ez da aldatu. 2016an Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako aurrekontua 22 milioi eurokoa da (2015ean izandako berdina) eta informazio hau idazteko unean sarbide-baldintza berak mantentzen dira.

### Zer nolako beharrak estaltzen dituzte?

- Etxebizitzaren alokairuaren gastuak. Gehienez, 250 €/hilean
- Hipotekaren interesen eta amortizazioen gastuak. Gehienez, 250 €/hilean, urtebetean
- Etxebizitzaren mantenu gastuak (energia, ura, kale-ondasun higiezinaren zerga, eta abar). Gehienez, 92,50 €/hilean
- Behar-beharrezko altzariak eta etxetresna elektrikoak erosteko gastuak. Gehienez, 1.850 €/urtean
- Lehen mailako premiak. Gehienez, 1.850 €/urtean
- Etxebizitzetako moldaketak, konponketak edota oinarritzko instalazioak. Gehienez, 1.850 €/urtean

### Norentzat dira?

Pertsona helduentzat (18 urtetik gorakoentzat) eta premia dutentzat. Beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea, eskabidea aurkeztu baino sei hilabete lehenago gutxienez.

### Informazio gehiagorako eta, eskubiderik izatekotan, laguntzak eskatzeko tokia

Zigoitiko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuan. Beharrezkoa da gizarte langilearekin alde aurretiko hitzordua eskatzea hurrengo telefono zenbakietan: 945 45 50 11 edo 945 43 04 60.



### Zigoitian onartutako Gizarte Larrialdietarako Laguntzak

2015: 4 pertsona  
2014: 3 pertsona  
2013: 4 pertsona  
2012: pertsona baten eskaria onartu zen eta beste batena ukatu zen

### Lan eskasia

Euskadin, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eskatzaileen arteko 5 lagunetik batek lana dauka, baina soldata ez da nahikoa bizitzeko.

### Berdintasun lan taldea, martxan!

## Martxoaren 8ko programa, iradokizun buzoia eta Ekonomia feminista

Aurreko alean iragarri genuen bezala, Zigoitiko I Berdintasun Plana abenduan aurkeztu zen bilera ireki batean. Plana herritarrei azaldu zen eta, udal ordezkariekin eta teknikariekin batera aurrera eraman ahal izateko, interesatuen artean lan talde bat sortu zen.


Jarraian hasi ziren lanean; bilera batzuk egin dira ordutik hona eta, besteak beste, hurrengo pausoak erabaki dira:

- **Iradokizun buzoia.** Zigoitiko Zentro Soziokulturalean jarriko da, herritarren iritziak, proposamenak edota kritikak jasotzeko asmoz. Lan taldean aztertuko dira eta, ahal den neurrian, Berdintasun Planaren garapenean kontuan hartuko dira.

- **Ekonomia feminista.** Berdintasun arloko aurtengo lan ardatza aukeratu dute eta horren inguruan hainbat jardura antolatuko dira; batez ere, Urriaren 15aren inguruan, gure adineko emakumeengan oinarrituta.

- **Martxoaren 8ko programazioa, Emakumeen Nazioarteko Eguna.** Martxoaren 5ean bertan, arratsaldeko 19:00etan eta Zigoitia Aretoan, 'Zuloak' filma ikusgai izango da. Nesken banda baten gorabeherak kontatzen dituen dokumental faltsua da, Fermin Muguruzak musikariak zuzendutakoa hain zuzen ere. Hurrengo egunean, martxoaren 6an, igandean ekitalditxo bat antolatuko da. Bengolarra inguruan eta festa giroan, musika, mozorroak eta eguerdiko poteoa aprobetxatuz, lan taldeak eginiko adierazpentxo bat irakurriko da. Bertan, Zigoitia **sexismorik gabeko udalerrira** aldarrikatuko dute. Ekitaldi irekia izango da eta zigoitiar guztiak gonbidatuta daude.

Jardura guztiak, eta baita laneko bilerak ere, herritar guztientzat zabalik daude jakina. Deialdiak, lan taldeko bileren aktak eta gainontzeko informazioa eskuragai daude udal webgunean, [www.zigoitia.eus/eu/udal-zerbitzuak/berdintasuna](http://www.zigoitia.eus/eu/udal-zerbitzuak/berdintasuna)



### Hizkuntza ez sexistarako aholkuak,

Luzaro pentsatu da euskara ez dela beste hizkuntza batzuk bezain sexista. Zergatik? Euskara ez delako 'genero hizkuntza' eta ez duelako maskulino generikoa edo orokorra. Baina euskararen ere badago generoa eta batzuetan desegoki adierazten dugu. Adibidez, GIZON hitza; tradizioan eta literaturan erabili da bai gizonak bakarrik bai gizonak eta emakumeak izendatzeko. Bigarren kasuan, berdintasunaren ikuspegitik, azkoz egokiagoa da erabiltzea pertsona, laguna, sozietatea, soziala, gizon-emakumeak, belaunaldia, jendetasuna...

Amelia Barkinen (Mondragon Unibertsitateko irakaslearen) laguntzarekin.

Ioseba Ortiz de Arrizabaleta, Zentro Soziokulturaleko atezaina

## 'Zigoitiko giroa ikusteko, behatoki ona da hau'



Lan esperientzia handiko gaztea. Ioseba jantokietako, udalekuetako eta aisialdiko monitorea, museo gidaria eta delineaizailea izan da.

- **Nola ailegatu zinen Zigoitira?** Mantentze-lanetako ikasketak egiten nituen bitartean, Zigoitiko ludotekan lan egin nuen arratsaldean. Behin ikasketak amaituta Holandara (Eindhovenera) joan nintzen praktikak egitera. Bueltan delineaizaile moduan bilatu nuen lana, baina aurkitu ez. Garai horretan, 2010ean, hemendik deitu ninduten berriro, bueltatzeko, baina atezain lanetan.

- **Gustura zaude?** Bai noski! Leku aparta da lan egiteko.

- **Zenbat zarete lan taldean?** Horixe da Zentroak duen altxorrik hoberena! 7 gara guztira; Carol, koordinatzailea: gure artean *suhiltzaile* bezala ezagutzen dugu, beti dago sua itzaltzeko prest eta irribarre batekin gainera; Lara eta Miren ludotekan: hauek bai *basapiztien* hezitzaile onak, Zigoitiko ume eta, batez ere, guraso gehienek asko zor diete neska hauei; Javi liburutegian: liburuen lagunik onena, Zigoitiko liburutegi barruan gertatzen den magia berari zor diogu. Ander Gazteleguan: adin konplikatueta neska-

Zentro Soziokulturalaren barruan ikusten dugu beti. Baina kalezale amorratua dugu Ioseba. Proiektu Mekanikoen Garapenean Goi Mailako Teknikari (delineatzaile) eta Industriako Mantentze Lanetarako Goi Mailako Teknikari honek aisialdiko denbora pasatzen du 'lagunekin mendian eta Gasteizko Kutxi kalean, Alaves futbol taldea ikusten eta, udan, beti bidaiatzen lanetik deskonektatzeko. Bidaiak GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde) batekin antolatzen ditut edo kanpoan dauden lagunak bisitatzeko aprobetxatzen dut'. Horrela, Amazonia aldeko zenbait komunitate bisitatu ditu Turismo Ekologiko sare bat garatzeko eta Caracasen 3 hilabete pasa ditu umezurtegi batean, udako kanpamenduak antolatzeko. 'Hor ikasi nuen zein garrantzitsua den bidaiatzea beste herrialdeetako kulturak ezagutzeko eta bizitzako lehentasunak eta pentsamoldeak hobeto ulertzeko'.

mutilekin *borrokatzeko* prest. Gainera margolari fin-fina da. Eta asteburueta harrerako Ander: denetarako prest eta primerako erizaina.

- **Zure lana, zertan datza?** Zentroa goizeko 10etan irekitzen da eta 13:00ean itxi. Euskara taldekoek ikasten duten bitartean, 11:00 aldera Eguneko Zentroko aitona-amonak heltzen hasten dira. 17:00ak arte hemen daude eta beraiekin hitz egitea asko gustatzen zait, Zigoitiko historia eta sekretu piloa dauzkate kontatzeko eta. Goizeko beste lan batzuk dira gelak, materialak eta abar prestatzea, datozen ekintzetarako prest egoteko. Arratsaldeetan ordea, mugimendu gehiago dago. 16:30etan ireki eta segidan ikastolako umeak eta gurasoak datoz. Jarduerak 17:00etan hasten dira: Gimnasia, Tai-chi, Yoga, Pilates, Zumba, Antzerkia, Joskintza, Eskulanak... Zigoitian denetarik dago!

Bitartean beti dago norbait laguntza behar duena ordenagailuekin. 'Ioseba!!! Ordenagailu madarikatua ez dabil!!!!'. Eta 21:30tarako, uzten badidate, itxi egiten dut zentroa hurrengo egunerara arte.

Hori guztia egun normal batean, baina askotan egun bereziak daude. Esate baterako, Aiton-Amonen eguna, Olentzero Jaia, Musika eskolako entzunaldiak, antzerkiak, pelikulak, hitzaldiak... eta horietan denetarik egin dugu, aurkezle-lana eta guzti! Lan handiko egunak dira baina oso giro onekoak ere bai.

- **Hasi zinenetik hona, zentroa aldatu da?**

Asko gainera!! Hasierako ume txikiak pixkanaka-pixkanaka gaztetxo bihurtu dira; gazteak zirenak, ordea, nagusi egin dira... eta horrek zentroko antolamendua aldatzera behartu gaitu.

Adibidez, lehen liburutegirik gabe geunden; denbora pasa ahala, ikasle gehiago etortzen hasi ziren eta liburutegi txiki bat ireki behar izan genuen, eta gaur egun denok disfrutatzen dugun liburutegi eder bat dugu. Gauza bera gertatu da beste zerbitzuekin: gazteleguarekin, ludotekarekin...

- **Zein da gehien gustatzen zaizun gunea?**

Nire mahaia (harrera lekua); ezin duzue imajinatu zelako gauzak entzuten eta ikusten ditudan hemendik! Zigoitiko giroa ikusteko *talaia* edo *behatoki* ona da. Eta jarduerari begira, gehien maite dudana Ikastolak antolatzen duen *Aiton-amonen Eguna* da. Nahiz eta egun horretako lana nahiko bizia den, oso egun polita da; jende asko biltzen da zentroan eta giro aparta dago.

- **Nork erabiltzen du zentroa?** Ateak beti irekita daude guztiontzat, baina batez ere gurasoek eta beren umeek erabiltzen dute. Datu batzuk emango dizkizut: jardueretan apuntatuta dauden pertsonen kopurua gutxi gora behera: 105 lagun; Liburutegian izena eman dutenak: 320 lagun; Ludotekan apuntatuta dauden umeak: 65 eta zenbakia gora doa (ez datoz denak aldi berean; hori gertatuko balitz, mahaiaren azpian ezkutatu beharko ginateteke).

- **Zure ustez, Zigoitiarrek ezagutzen eta baloratzen dute Zentroa?** Denetarik dago. Badago jende asko hemen dauzkagun zerbitzuak oso ondo baloratzen dituenak, eta horiek guztiek asko laguntzen dute hobetzeko.

Baina beste batzuek, hemen ikusi dut, eraikina ezagutzen dute baina ez barruan gertatzen dena. Hori konpontzeko hoberena izango zen hemendik pasatzea egun batean eta ikustea zelako zerbitzuak eskaintzen dizkiegun zigoitiarrei. Konpromiso barik, azalduko eta erakutsiko nieke dagoen guztia. Esan behar dut beste herrietako jendea Zigoitiko zentroa hurbiltzen denean, harrিতuta ateratzen dela daukagunarekin.



## Galdera desererosoa

- **Zein da, zure ustez, hemen lan egitearen hoberena eta txarrena?**

Udalerrri txikia baina mugimendu handikoa da Zigoitia eta zentroan gertatzen dira ia gauza guztiak. Hemen adin guztietako jendea biltzen da egunean zehar, bakoitzak bere lekua dauka baina denek konpartitzen dute sabai bera, eta hori nabaritzen da, giro aparta dago.

Txarrena... ez dakit zer esan, jende askok irakurri dezake eta behar bada ez zaie gustatuko. Mundu guztiari gertatzen zaion bezala, niretzat ere astelehenetako goizak oso txarrak izaten dira, je, je!

## Narciso Álava, Ondategiko aguazila

Isidro Saenz de Urturiren eskutik

Urte batean, Berrikanoko dantzaldian, afaldu ondoren, Legutioko Guardia Zibila agertu zen. Guardiak etxe batean egon ziren edanean, eta apur bat *kaltetuta* zetozen. Gazte-jendea zirikatzen hasi ziren, batez ere txokolatea prestatzen ari ziren neskak. Eta hara azaldu zen Narciso, udal aguazila. Arreta deitu zien baina guardiek kasurik ez. Are gehiago: harroxkoago jarri ziren. Baina aguazilak biak hartu, fusilak kendu eta soro batera bota zituen, astindu on bat eman zien eta kuartelera bidali zituen. Bi egun geroago deitu zioten Narcisori, orduan Gasteizko Prado kalean zegoen Gobernu Zibilera joateko. Uriarteko autobusean jaitsi zen, Gobernuaren aurrean aurkeztu zen eta hor, egin zuena kontuan hartuta, atxilotu egingo zutela esan zioten. Hark erantzun zuen bere lana ordena mantentzea zela eta hurrengo batean guardiek ez bazuten ondo jokatzeko, berriro ere egingo zukeela. Eguerdian etxera bueltatzeko esan zioten, eta oinez itzuli zen Ondategira Narciso. Heldu zenerako, berria zabaldua zegoen bazter guztietan eta bizikletaz igotzen ziren batzuek ikusi zuten jada. Guardia zibilak Izarrara lekualdatu zituzten. Egun batzuk geroago, Narciso, bere semea eta koinatua, Kuartangoko Anda herriko errotara idi



gurdiaekin abiatu ziren. Abornikanon guardiek gelditzeko esan zieten eta ibiltzeko baimena eskatu zien. Nor zen konturatu zirenean, batak besteari bota zion: 'utzi pasatzen; jipoitzen bagaitu, bere hitzak gureak baino gehiago balio du eta'. Berrikanoko guardiak ziren.

### ISIDRO SAENZ DE URTURI

'Telebistarekin, etxeetan ez dago elkarrizketarik jada! Lehen, artoa zuritzen zenuen bitartean, aurretik arrosarioa errezatu eta gero hitz egiten zuten familiek'. Isidro Saenz de Urturik diosku hori. Etnografoa eta Euskal Herriko Etniker taldeko, Arabako Etnografia Mintegiko eta Eusko Ikaskuntzako kolaboratzailea dugu. Udalerrian egin duen lanari esker, *Zigoitiarrak* saila irekiko dugu hemendik aurrera. Hamazazpiko orrietara bailarako pertsona xebebreak ekarriko ditugu, intentzio nabarmen batekin: beren abenturak irakurtzeak, familia arteko bazkalondoko elkarrizketa piztea.



## Gasteizko EHUko bi ikaslek Zigoitian XX. Mendearen hasieran euskararen egoera aztertu dute Badireutsut, ba!



Ezkerretik eskubira, Estibaliz Folgoso eta Jaione Guisasola.

**Zigoitia. XX. mendearen hasiera, gerra zibilaren aurretik. Kosta egiten zaigu irudikatzea zer-nolako giroa egongo zen garai hartan. Hala ere, baditugu lekukotzak, artxiboak eta dokumentuak... eta, beste datu batzuen artean, zer-nolako euskara egiten zen jakin dezakegu.**

Izenburura ekarri dugun forma (gaur egun, euskara batuan, 'badiotsut, ba!' izango litzateke bere parekoa) eta beste hainbat ere ekarri zituzten Esti Folgoso eta Jaione Guisasola EHUko ikasleek, joan den urtarrilaren 14an. Zigoitian XX. Mendearen hasieran euskarak zuen egoera azaldu ziguten, gai horren inguruan egin baitute lan unibertsitatean. Lekukotzak, noski, ez dira asko, baina bat badago, oso garrantzitsua: R. M. Azkueren zuzendaritzapean, 1922 eta 1924 urteen artean egin zen 'Erizkizundi irukoitz' lana. Euskararen lurralde osoan egindako inkesta moduko bat izan zen, eta euskararen aldaerak fonetikoki, lexikoki... sailkatzen saiatu ziren Azkue eta bere kideak. Zigoitian, zehazki, Nikolas Ormaetxea 'Orixe' (idazle eta euskaltzale ezaguna) ibili zen galdezka. Zazpi herritako informatzaileak izan zituen (Etxaguen, Okoizta, Murua, Manurga, Gopegi, Eribe eta Zestafekoak): oro har, jende edadetua, 60 urtetik gorakoa: hau da, XIX. Mendean jaiotakoak, euskarak presentzia handiagoa zuen garaikoak eta hizkuntzaren gainbeheraren lekuko biziak.

### Bizkaiko mendebaldeko euskalkia

EHUko bi ikasleek aipatutako inkestan jasotako datuak azaldu zituzten xehe-xehe, eta hainbat ondorioren berri ere eman zuten. Zigoitian hitz egiten zen euskarak gaur egun Bizkaian erabiltzen den 'mendebaldeko euskalkiaren' ezaugarri ugari ditu. Adibide asko eman zituzten hizlariak: arrebie ('-ie' bukaera), gatxa ('zaila'-ren sinonimoa Bizkaia aldean), aditzen erabilera (dauena...), izenburuan aipatu dugun direutsut eta antzerako formak... Era berean, esan zuten oso euskalki kontserbatzailea zela Zigoitikoa, eta, beraz, Arabako euskararen ezaugarriekin parekatzen zuela horrek. 'Erizkizundi irukoitzaren' bidez jasotako datuak mugatuak dira, eta zaila da Zigoitiko euskararen berri zehaztasun osoz jakitea. Hala ere, onuragarria da gogoratzea orain dela 100 urte baino gutxiago euskara bizi-bizirik zuten herritar ugari zeudela Zigoitian. Orditik hona gertatu den guztiak ez dezala memoriaren lana eragotzi!

**Unai Pascualen, Ingurumen Ekonomian Doktore eta Zigoitiko herritarraren, eskutik**

## Klima aldaketa ulertzeko 6 gakoak

**Zigoitiko Zentro Soziokulturalean ‘Suarekin jolasean: klima aldaketa eztabaidagai’ hitzaldia eman ondoren, Unai Pascual zientifiko eta dibulgatzailearekin hitz egin dugu. Zertan datzan fenomeno eta nola egin aurre kontatu digu. Eta ekiteko animatu ere bai. ‘Egia esan, gauza asko egin genitzake’, dio adituak. Jabetzeko, jarraitu irakurtzen.**



Argazkia: *Elena Mota.*

### 1\_ Klima Aldaketaren fenomeno

‘Klima eta eguraldia gauza ezberdinak dira. Klima aldaketaz hitz egiteko epe luzeko tendentzietaz hitz egin behar dugu. Gutxienez, 30 urte baino gehiagoko lurraren fenomeno meteorologikoak aztertu behar dira. Gaur egun, klima aldaketa pairatzen hasiak garela argi dute zientzialariek. Milaka eta milaka urtetan zehar aldaketa naturalak jasan ditu Lurra planetaren klimak, baino XIX mendetik hona, iraultza industrialak izan zenetik, hain zuzen ere, klima azkarregi aldatu dela ikusi dugu. Zergatik? Gizakiok erregai fosilak (ikatz, gasa eta petrolio, batez ere) modu oso intentsiboan eta azeleratuan erabiltzen hasi ginelako. Erregai fosilek negutegi efektua sortzen duten gasak eratzen ditu, CO<sub>2</sub>-a kasu. Gas isurketa hauen ondorioz, eguzkiak bidaltzen digun beroa atmosferan harrapatu gelditzen da eta Lurra planetaren azala (lurra eta itsasoa) berotu egiten ditu. Oraingoz, jadanik batzuek beste Lurraren azala gradu zentigradu batetan berotu da XIX mendetik gaurdaino. Horrelako beroketa azkarrik historian zehar ez da inoiz gertatu.’

### 2\_ Ebidentziak. Zertan nabaritu

‘Gauza bat ondo ulertu behar dugu, batzuek beste tenperatura igoera batek ez du esan nahi tenperatura leku guztietan berdin igotzen ari denik. Leku gehienetan gradu bat baino gehiago igotzen ari da, beste leku batzuetan jaisten ari bada ere. Gainera, tenperatura aldaketa hau adierazle bat da. Horrekin batera, efektu edo perturbazio oso bortitzak gertatzen ari dira (uholdeak, lehorteak, zikloiak, etab). Esate baterako, gure gorputzaren tenperatura normala 37 gradutan baldin badago, 38 gradutara edo gehiago igotzen denean sukarra dugula esaten dugu, baino hau efektu bat besterik ez da, sukarrarekin beste hainbeste efektu nabaritzen ditugu. Lurrak sukarra duela esan dezakegu, gaixotasun globala eta epe oso luzekoa izango dena. Ezer gutxi egiten badugu, atzeraezina izango den efektua.’

### 3\_ Arazoaren ukapena

‘Dagoeneko arduradun politikoek ez dute ukatzen. Rajoyren lehengusua anekdota

penagarriak historia dira. Orain ez dago ordezkaririk politikorik Klima Aldaketa ukatzeko adorerik duenik, gizarteak dagoeneko arazoa hemen dagoela badakielako. Gizartea ez da tuntu. Beste alde batetik, badaude lobby boteretsuak, tabakoarenak izan diren bezala, erregai fosilekin negozioa egiteari hain errez utziko ez diotenak. Milioika eurotako inbertsioak egiten dituzte zientzialarion lana manipulatzeko eta gizartearen oraindik dudak sortzeko. Klimaren negazionistak dira erregai fosilen negozio borobilarekin aberasten diren horiek.’

### 4\_ Ondorio larrienak

‘Euskal Herrian XXI. mendearen bukaerarako zer gertatuko den badakigu arazoari aurre egiten ez badiogu. Adibidez, udak askoz beroagoak izango dira (7 gradu baino gehiagoko igoera izango dugu batzuek beste), eta baita askoz lehorragoak ere (%50 gutxiago egingo du eurria). Neguan berriz, 2,5 graduko igoera pairatuko dugu, eta euri gehiago (% 20 gehiago batzuek beste). Itsasoaren maila metro erdi igoko da eta honek esan nahi du euskal kostaldean 400 hektarea inguru galduko ditugula. Gure osasunak kalitatea galduko du, batez ere umeena, pertsona adindunena eta arnasteko arazoak dituztenena, gehien bat hirietan bizi direnentzako. Nekazaritzak ere sufrituko du, hala nola, hain gustuko dugun Errioxako ardoaren kalitatea jaitsiko da egingo duen berotzarraren ondorioz. Horrelako inpaktu asko jasango ditugu gurean. Baina kezagarrienak Hirugarren Munduan pairatuko dituzten efektuak dira. Hango jendeak guk baino askoz ere aukera gutxiago dauka Klima Aldaketari aurre egiteko. Hango nekazari gehienak oso txiroak dira eta urte bateko uzta behin eta berriro galtzeko arrisku bizi dute daude jadanik lehorte eta uholdeen ondorioz. Muturreko efektu hauen ondorioz, errefuxiatu klimatikoak sortzen ari dira dagoeneko. Sirian egun ematen den arazo larriak, orain dela urte batzuk izandako lehorte izugarri batekin zerikusia ere badu.’

### 5\_ Gobernuen papera

‘Alde batetik, ekonomia ereduak errotik aldatu. Honek esan nahi du gure erregai fosilen dependentziarekin bukatzeko politikak sustatu behar dituztela. Bai industrian eta energiaren

ekoizpenean, eta baita beste sektoreetan ere, adibidez mugikortasunaren sektorean. Euskal Herrian garraioa (kotxearen erabilera gehienbat) berotegi efektua sortzen duten gasen laurden baten erantzule da dagoeneko. Beraz, mugikortasun ereduak errotik aldatu behar ditugu. Nekazaritza ereduak ere aldatu beharra dugu.’

### 6\_ Herritarraren ardura

‘Egiten dugun kontsumoaren arduradunak gara. Gure kotxearen erabilera aldatu beharra dugu, zer jaten dugun, oportetean zein hegazkin bidaia egiten dugun, etab. Kontsumitzaileak garen heinean ekoizleen ardura bera dugu. Gauza errazak dira aldatu beharrekoak: elektrizitatea energia berriztagarrietatik datorrela ziurtatu eta elektrizitatea aurreztu, bertako jakiak erosi, kontsumo maila jaitsi, kotxea partekatzen saiatu, etab. Uste dut norberak badakiela nondik hasi eta non/nori presioa egin ere. Galdera da, norainoko bidea egin nahi dugun. Elkarrekin bidea egitea errazagoa dela ere badakigu, beraz ekin diezaiogun auzolanean eredu berritzaile bat sortzeari. Gure pailazo faboritoek esaten duten bezala, sentitu, pentsatu, ekin!’



### IUNAI PASCUAL GARCIA DE AZILU

Ingurumen Ekonomian Doktorea (York-eko Unibertsitatea, Erresuma Batua). Klima aldaketa eta ingurumenaren justizian aditua. Gasteiztarra eta Gopegiko herritarra. Gaur egun Basque Centre for Climate Change (BC3) ikerketa zentruan *Ikerbasque Research Professor* da. Cambridge-eko Unibertsitateko irakasle senior-a ere izan da hamar urtez.

Parkeen jarraikortasuna

## Peio Murua edo ereiten duenaren eskuak

**Argazkilari gaztea, Abadelaueta Elkarte Etnografikoa eta Gorbeia Eskolako ikasle eta gurasoak izango dira udaberriko protagonistak. Liburuen baimenarekin, jakina.**

Texto y selección de fotos: **Javier Arbulu**



René Char, Hipnos-en Orriak liburuko 86.ean: 'Uztarik garbienak ez dagoen lurzoruan ereiten dira. Eskerrona ezabatzen dute eta udaberriarekin soilik daude zorretan.'

Ez izutu inor, liburuzaina ez da garbia, eta ez du ezkututzen. Ez gara berari buruz ari. Uztei buruz ari gara, eta, gainera, egia esan, ez dugu zerikusi handirik beraiekin. Peio Muruaz ari gara.

Oraindik ez dakizue nor den Peio Murua? Ez da ezer gertatzen; ubarriek, miruek, zangaluzeez, sai beltzak, arratoi-busardoak eta txilarrek ere ez dakite. Baina Peio hor dago, haiengandik guztiengandik hurbil, maite duen hori lurrera bota gabe harrapatzeak suposatzen duen mirari horren bidez samurki zelatan.

Peiok argazkiak ateratzen dizkie. Blog-a dauka. 'Peio Murua' teklatu eta aurkituko duzue. Horretaz gain, Peio liburutegiaren jardueren muina izango da udaberrian.

Apirilaren 23an, goizean, liburuzainak eta guraso arduratsu batzuek gure larruan egiaztatuko dugu lurraldeko espezieen eboluzioa. Hots, Gorbeia Eskolako espezieen hoberekek lagunduta, Peiorekin Zigoitiko bideetan zehar joango gara. Ibili egingo gara. Begiratu egingo dugu. Entzun egingo dugu. Argazkiak egingo ditugu. Naturalista zaharrek esaten zuten moduan, landa-oharrak hartuko ditugu. Espero dugu lagunduko gaituzten espezieen baliotsuek, babestutako aleak guztiak, hozkadarik edo minik ez jasatea.

Aurretik, Abadelaueta Elkarte Etnografikoko kide batzuekin elkartuko gara, eztabaidatzeko zein izan litekeen gure espedizioak hartu behar duen biderik onena. Eta Andrés Ruiz de Gauna asmatzailearekin ere bilduko gara, ea kanpainak ekiparen alderditeknikobatzukinplementatzea lortzen dugun. Dena oso darwinista eta

hemeretzigarren mendekoa, ikusten duzue. Geroago, maiatzean, material dokumentala bilduko dugu eta Peioren blogera igoko dugu, gure aurkikuntzak komunitate zientifiko guztiari helarazteko.

Azkenik, liburutegitik bertatik irratsaio bat egin nahi genuke, gure espezieen zoragarriak eta beren harrapaketak erakutsi ahal izateko. Ez izutu oraingo honetan ere, gure aurkikuntzak, irratsaiorako, bizi-bizirik eta txukun-txukun nahi ditugu.

'Existitzen ez den lurzorua' erreskatatuko dugu, gure buruari jarritako erronkak beti duelako adore, abentura eta egurats zati bat.

Eta Hamazazpi uzten dizkigun orri zuri eta zintzo hauek lurralde hori nabarmentzen dute, oraindik ere gertatu ez denaz eta proposatzen dugunaz hitz eginez.

Gaurko egunez\*, negu udaberritsu honetako otsailaren 22an, 'Kontatuko Didazu Ipuin Bat' gure programak, 16 jarduera jarri ditu martxan; 325 pertsona baino gehiagok hartu dute parte eta 1.050 euroko kostua izan du.

Era berean, aipatu nahi dut ere sentitzen dudana eskerrona: neurrigabea kontatza animatu

diren boluntario dardarati guztiak (benetan ederra izan da); Carolekiko, saio guztiak argazki kamerarekin jaso dituen; Iosebarekiko, prestakuntzaz jabetu duena; Lararekiko, bere bezero maitatu batzuk usurpatu genizkiona; gurasoekiko, eta gainontzeko legezko tutorekiko, programaren mugak estoikoki bete dituztenak.

Baina gaur Peio Muruaz hitz egitea tokatzen zen eta, izen hobe baten faltan, oraindik 'Parkeen jarraikortasuna' deituko dugunaz. Edo, hobe esanda, Peioz, lagunduko gaituen Abadelauetako jendeaz eta, azkenik, Araceliz eta Gorbeiak Eskolako langileez. Aipatutako programa beren laguntzarekin eramango dugulako aurrera. Egia esan, 'Txanela' ikasgaien dauden gaiak lokatsetara eta bizitzara eramatea delako egiten dugun bakarra. Eta horretarako ezinbestekoa da beren laguntza. Eta esango didazue, 'nola hitz egin dezakezu uztaz, ereiten den lurzorua ere ezagutzen ez baduzu?'

Eta esango dizuet, badelako denbora ereiten duenaren eskuak ezagutzen ditudala. Zigoitiko basoetako Peio horren eskuak. Bere buruaren gainean ehizatze sarea jartzen duenarenak.



P.D: Ioseba du izena eta guzti honen nagusia da. Egia esan, nagusiek baino gutxiago agintzen du eta gutxiago kobratzen du. Baina edozein umeri galdetzen badiozu nagusia nor den, sarrerako mahaia seinalatuko du. Hor non, Carolek

babestuta, egunero ikusten eta konpontzen diren hamaika arazo. Ioseba, nagusi on bat, nagusia.

(\*Javier Arbuluk kolaborazioa egin zuen data)



## Etxaguendik Oketarako bidearen konponketa

Zigoitiko Erabilgarritasun Publikoko Mendietan burututako lanen artean, Etxaguen herritik Oketako larreetaraino doan bidean lan batzuk egin ditu Udalak, sarbideak hobetzeko asmoz. Areka batzuk garbitu dira eta bideko puntu desberdinetan 3 hodi jarri dira ura beste aldera ateratzeko; Era berean, sarbidea eta ibilbideko

hainbat puntu konpondu dira, udalerrian egiten ari diren lanetatik ateratako 10 kamioikada harri ekarrita.

Hori guztia egin ahal izateko aprobetxatu da, gainera, Oketako hego hegalean anfibio baltsak egiteko erabiltzen ari zen makineria.

### Autobusen ordutegiak

#### ZIGOITIA | GASTEIZ/ VITORIA

ZESTAFE	OKOIZTA/ACOSTA	ETXAGUEN	MUJUA	LARRINGOA	MANURGA	GOPEGI	ERIBE	BURLUAGA	BERRIKAND	APODAKA	ETXABARRI IBIÑA	GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL)	GASTEIZ/VITORIA
<b>ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES &gt;&gt;&gt;&gt;&gt;&gt;</b>													
*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	*	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26
*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	*	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56
*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	*	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26
*	*	14:30	14:33	14:35	*	14:38	14:41	*	14:44	14:48	14:55	14:57	15:06
*	*	16:00	16:03	16:05	*	16:08	16:11	*	16:14	16:18	16:25	16:27	16:36
*	*	18:45	18:48	18:50	*	18:53	18:56	*	18:59	19:03	19:10	19:12	19:21
*	*	21:55	21:58	22:00	*	22:03	22:06	*	22:09	22:13	22:20	22:22	22:31
<b>LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS &gt;&gt;&gt;&gt;&gt;&gt;</b>													
*	*	09:55	09:58	10:00	*	10:03	10:06	*	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31
*	*	12:45	12:48	12:50	*	12:53	12:56	*	12:59	13:03	13:10	13:12	13:21
*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	*	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31
*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	*	22:14	22:18	22:25	22:27	22:36

#### 1

#### GASTEIZ/ VITORIA | ZIGOITIA

GASTEIZ/VITORIA	GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL)	ETXABARRI IBIÑA	APODAKA	BERRIKAND	BURLUAGA	ERIBE	GOPEGI	MANURGA	LARRINGOA	MUJUA	ETXAGUEN	OKOIZTA/ACOSTA	ZESTAFE
<b>ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES &gt;&gt;&gt;&gt;&gt;&gt;</b>													
07:35	07:44	07:46	07:53	07:57	*	08:00	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*
09:05	09:14	09:16	09:23	09:27	*	09:30	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*
13:45	13:54	13:56	14:03	14:07	*	14:10	14:13	*	14:16	14:18	14:21	*	*
15:15	15:24	15:26	15:33	15:37	*	15:40	15:43	*	15:46	15:48	15:51	*	*
18:00	18:09	18:11	18:18	18:22	*	18:25	18:28	*	18:31	18:33	18:36	*	*
21:10	21:19	21:21	21:28	21:32	*	21:35	21:38	*	21:41	21:43	21:46	*	*
<b>LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS &gt;&gt;&gt;&gt;&gt;&gt;</b>													
09:10	09:19	09:21	09:28	09:32	*	09:35	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*
12:00	12:09	12:11	12:18	12:22	*	12:25	12:28	*	12:31	12:33	12:36	*	*
15:10	15:19	15:21	15:28	15:32	*	15:35	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*
21:15	21:24	21:26	21:33	21:37	*	21:40	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*

\* HURBILTZA / ACERCAMIENTO